



Zuzendaritza-talde agurgarria,

2016-17 ikasturtea hasi berri dugula zuengana gatoz, asmo hirukoitzarekin.

Batetik, zuzendaritza-talde hori agurtu eta egiten ari zareten lana eta jardun arduratsua **eskertu** nahi dizuegu, eskutitz honen bidez.

Bestetik, **irailaren 29an** Gasteizko CIFP Mendizabala LHI ikastetxean (Portal de Lasarte z/g), 9:30etik 12:00etara burutuko dugun **batzarrerako deia** luzatzen dizuegu. Batzar honetan, besteak beste, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum Osoa aurkeztuko dizuegu, curriculuma gelara eramateko prestatu ditugun tresna guztiekin batera, eta zeuen kezka nagusiak ere azaldu ahal izango dituzue.

Azkenik, iraileko deialdi, eskaintza edota agirien **berri emango** dizuegu jarraian:

1. Hizkuntza proiektu hirueledun eta eleaniztunak dituzuen ikastetxe publikoek *Hizkuntzen trataera integratu eta integralari buruzko prestakuntza espezifikoa* parte hartzeko **irailaren 19ra** arte eman ahal duzue izena: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/hizkuntzen-trataera-integratua-2016>.
2. 4 eta 5 urteko ikasleen *Garapenaren Etengabeko Jarraipenari* buruzko prestakuntzan parte hartzerik izan ez duzuenok **irailaren 17tik urriaren 18ra** bigarren aukera bat izango duzue.
3. *“Desgaitasunetik inklusiora”* jardunaldirako, **irailaren 22ra** arte eman daiteke izena: <https://sites.google.com/a/berritzegunenagusia.eus/desgaitasunetik-inklusiora-jardunaldia>.
4. *Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko 10 orduko formakuntza modulua* egiteko CDa Berritzeguneko aholkulariek banatuko dizuete **datozen egunetan**. Ildo beretik, *Ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko ikastetxeei zuzendutako protokoloa* http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r432459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_lgtb_fob/adjuntos/Protokolo_Trans_2016_e.pdf helbidean duzue. Halaber, *Emakumeen Mutilazio Genitalari buruzko protokoloa* **urrian** izango duzue eskuragarri.
5. *Programazio didaktikoak egiteko Gida* **irailaren 20an** jasoko duzue.
6. *Ikastetxearen Elkarbitza Plana egiteko Gida*, **irailaren 20rako** izango duzue.
7. *Hezkuntza Nortasun Agiria* IKASTEAtarian familia, irakasle eta ikasleen eskura jartzeko, ikasleen datuak eguneratzeko eskatuko zaizue **datozen egunetan**.

Informazio guztia baliagarri izango delakoan eta irailaren 29an elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaituztet Gasteizen, 2016ko irailaren 14an.

ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO
Hezkuntza sailburuordea